

BANDOA (B22-2021)

ZAKURREN ERASOAK ARDIEI

Azken egun hauetan Beran hainbat artalde zakurrengandik erasotuak izan dira. Azken erasoak Zia eta Kaule auzoetan gertatu dira, baina arazoa hainbat baserritarrek pairatzen dute. Kezka eta ezingona nabariak dira.

Azken urtean hamarnaka ardi hil dira modu honetan, bertze batzuk desagertu eta bertze hainbat zaurituak geldituz.

Aipatzekoa da sarri erasoak etxeko belategietan gertatu izan direla. Pentsatzen da txakur erasotzaileak ez direla zakur abandonatuak. Hau da, jabeak dituztela, eta arratsetan beraien etxaldeetatik ihes egin eta erasoak egiten ibiltzen direla, triskantza egin ondoren beraien etxeetara bueltatuz.

Udaletik eskaera bat egiten da, txakur jabe direnek beraien zakurrak zaintzapean eta kontrolpean izan ditzatela, egunez eta gauez ere bai.

Oroitarazten da ere, mendira goazenean zakurra beti kontrolpean izan behar dugula, eta azienda den tokietan zakurra lotua eraman behar dela.

Mendian ere izaten dira ardiak erasotuak.

Arazo larri baten aitzinean gaude, eta konpondu beharrean larritzen ari dela sumatzen dugu.

Beraz, gure zakurrak kontrolpean izan ditzagun, honelakorik aurrerantzean gehiago gerta ez dadin.

Bera, 2021-07-23
SINADURA DIGITALA.
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña